

## PRENTSA DEIALDIA ETA GONBIDAPENA

### Gaia:

XXI. Sagardo Berriaren Eguna 2014. 2014ko txotx irekiera ekitaldia.

**Data:** 2014ko urtarrilak 15.

**Ordua:** 12:00.

### Tokia:

#### Prentsaurrekoa:

Sagardoetxea, Euskal Sagardoaren Museoa.  
Kale Nagusia, 48.  
20115 Astigarraga.

#### Txotx irekiera:

Alorrenea Sagardotegia.  
Alorrene bidea, 4.  
20115 Astigarraga.

### Deskribapena:

Sagardoaren Lurraldeak antolatuta, urtarrilaren 15an XXI. Sagardo Berriaren Eguna 2014 ospatuko da txotx denboraldi berriari irekiera emateko. Aurtengo protagonista, Iparraldeko Kalakan musika taldea izango da.

### Egitaraua:

**12:00:** Prentsaurrekoa Sagardoetxea Museoan. Bertan azalduko dira 2013ko uztaren ezaugarri nagusiak, sagarraren eta sagardo berriaren ezaugarriak eta sagardoaren munduko gertaera nagusiak.

**13:00:** Kalakan musika taldeak sagarrondo bat landatuko du Sagardoetxeako sagastian.

**13:45:** "Gure Sagardo Berria" oihu eginda lehen kupela irekiko du Kalakan musika taldeak Astigarragako Alorrenea sagardotegian eta honekin, txotx denboraldiari hasiera emango zaio. Ondoren, denboraldiko sagardotegiko lehenengo menua dastatuko da.

**18:00-20:00:** Pintxotx Astigarragako tabernetan.

**20:30:** Talde kulturalen afariak sagardotegietan.

**Asistentzia baieztatzea** eskatzen da akreditazioak pertsonalizatu ahal izateko. Akreditazioak Sagardoetxea Museoan banatuko dira 11:30etatik 12:30etara bitartean eta Alorrenea sagardotegian 13:00etatik 14:00etara bitartean.

Bestalde, XXI. Sagardo Berriaren Eguneako protagonistei elkarrizketak egiteko bi gune ezarriko dira: bata, Sagardoetxea Museoan sagarrondoa landatu ostean, eta bestea, Alorrenea sagardotegian txotx irekieraren ostean. Elkarrizketen kudeaketa hobetzeko asmoz, **elkarrizketak egiteko tarteak baieztatzea** eskatzen da.

### Informazio gehiagorako:

Leire Alkorta (Prentsa arduraduna)

Tel: 943 550 575

e-maila: info@sagardoarenlurraldea.com

### Sagardun-en inguruan:

Sagardun Partzuergoa 2003. urtean sortu zen entitate publiko-pribatua da. Gaur egun Sagardoetxea, Euskal Sagardoaren Museoa, Sagardo Berriaren Eguna eta Sagar Uzta ekitaldiak antolatzen ditu, sagardoaren kultura sustatzen du esperientzia turistikoa ezberdinen bitartez eta "Sagardoaren Lurraldea" marka kudeatzen du.